






Jon Zabaleta







Testua: Mikel Begoña

Irudiak: Jon Zabaleta

Maketazioa: Belén Moreno

ISBN: 978-84-122188-3-1

LG: D01275-2022

Argitalpena: 2022ko azaroa | Ale-kopurua: 300

Inprimaketa: Fasprint Igara

Argitaratzailea: Hernaniko Udala



JON ZABALETA (Hernani, 1950)


Joseph Camino Saria

Joseph Camino Saria Bilboko Parrapean komiki jaialdiaren baitan sortu zen euskal komikigintzaren aitzindariak saritzeko. *Joseph Camino* bera izan zen lehen saritua *Pan-pin* komiki aldizkaria 1960an sortzeagatik. *Pan-pin* tebeoa oasi txiki bat izan zen euskal kultura basamortua zen garaietan. *Joseph Camino* berak hartu zuen lehen saria oraindik izenik ez zeukanean. Gero, bai, *Joseph Camino* saria sortu zen. *Gregorio Muro "Harriet"*, *Antton Olariaga* eta *Daniel Redondo*, esperientzia handiko eta ibilbide luzeko profesionalak, jaso zuten saria ondorengo edizioetan. Saria 2014ean sortu eta 2018an desagertu zen. Orain *Joseph Camino saria HernaniKomik* jardunaldien baitan berpiztu da. Bosgarren irabazleak ez du autobidearen peajearik ordaindu beharrik inora joateko, Hernaniko semea baita: *Jon Zabaleta Larburu*.

JON ZABALETA ETA HERAKLITOREN BARRASKILOA


Karabelko etxia

Pantha Rei, den-dena aldakorra da. Errotonda bat dago gaur Hernanin *Zabaletatarrak* sortu ziren etxea zegoen tokian. *Jon Zabaletak* oraindik xehetasun osoz deskribatzen du bere jaiotetxea, *Karabelko etxia*. *Egin* egunkarirako egin zuen egutegi famatuaren oinarrian *Karabelko etxia* zegoen, *Zabaletak* gogoratzen zuen bezala. 1977an kaleratu zen egutegian *Zabaletaren* irudimen poetikoak *Karabelko etxia Eginen* errotatiba bihurtu zuen, baina han zegoen oraindik goiko pisuan familiaren etxebizitza eta etxepean aitaren makina-tailerra, egutegiaren bertsiorako “kupela-errotatiba” bihurtu zuena.



Juan izena hartu zuen *Karabelen* jaio zen umeak, baina bataio egunean *Manuel* izena ere ibili zen dantzan, amonak hala proposatuta. Baina aitonaren erabakiz *Manuel* itzalean geratu zen, *Juanito eta basta*. Etxean ezin aipa ere egin *Manuel* izena beldurragatik, *Manuel* izenaren atzean errepresio historia luze bat baitzegoen. *Juan Manuel Larburu Odriozola (1912-1944)* Jonen amaren osaba zen. Frankoren armadan borrokatzera beharturik, salaketa baten ondoren desertatu, Errepublikako armadara pasatu eta Espainiako gerra amaitu eta gero Comète sareko partaidea izan zen. Naziek atxilotu eta *Buchenwaldeko* kontzentrazio esparrura eraman zuten, *Flossenbürgera* ondoren. Hara iritsi eta hilabetera hil zen. Istorio hau hona ekarri badugu, oso laburtuta bada ere, Jonen ibilbide artistikoan *Manuelen* memoriaren berreskuratzeak izan duen garrantziagatik da. *Koldo Mitxelena Kultur Zentroak* erakusketa monografiko bat eskaini zion paper gainean hainbat teknikak erabiliz egindako produkzio artistikoari: akrilikoak, collageak, errotuladoreak, teknika mixtoak... *Manuel – memoria* zeukan izena 2005 urte bukaeran antolatu zen erakusketak. Barrena asaskatzeko beharra zuen *Jonek*. Hori egin zuen erakusketa honen bitartez.

Txiki-txikitatik bere izebak plazatik ekarritako aldizkariak, modakoak etabar ikusten zituen. Ikusi irakurri baino gehiago, hitzik gabekoak baitziren haietariko asko, Frantzia aldekoak gehienak. Zabaletak garatu duen komiki muturako joera agian garai horretan sortu zen. Esan dezagun, bidenabar, *mimoaren* artearen eragina ere beti izan dela presente Jonen marrazkietan, mimoa ere inoiz praktikatu izan duelako. Umore grafiko frankofonoak, beraz, eragin handia izan zuen bere ondorengo lanetan. Oraindik ere errespetu eta miresmen handiz izen batzuk aipatzen ditu, *Jean-Michel Folon* adibidez.



Koldo Mitxelena Kultur Zentroan egindako erakusketa monografikoaren irudi bat (2005)

Bostekoa

Nahiz eta familiak delineatzaile ikastea nahi izan, 18 urterekin Ergobiako Bostak enpresan, grafikogintzan, hasi zen lanean. Serigrafia, grabatuak eta dendetarako poltsak edo paper finak marrazkiekin diseinatzen zituzten bertan. Sortu berri zen *Debako Arte Eskolara* joateko utzi zuen lana Jonek, eta, bizitzaren kasualitateak, berak utzitako laneko mahaia gero ospetsua bihurtuko zen Hernaniko beste marrazkilari batek hartu zuen, *Gregorio Muro Harrietek*. "Bere lan-mahaia zirriborroz eta marrazkiz beteta zegoen" azaldu digu.

Garai hartan hasi zen bere lehen ilustrazio lanak argitaratzen, eta harrezkero ez da oraindik geratu. *Debako Eskolako* garaietan *Xabier Mendiguren Bereziartuk* idatzitako *5garren maila* euskera liburua marrazkiz hornitu zuen. *Laugarren* eta *Hirugarren* maila kaleratu ziren ere baina Jon Zabaletaren ustez, bosgarrena izan zen hoberena. Donostiako *Alvarez Iraola* inprentak kaleratu zuen liburua 1974ean.

Deba Arte Eskolako
zigilua Zabaletak
sortu zuen




Euskal gramatika baterako
irudiak egin zituen, 1974.

Ostoloza

Baina 1971 eta 1974 bitartean *Oteizak* bultzatutako *Debako Arte Eskolan* sartu eta marrazketan trebatu zen. *Bauhaus* mugimenduaren eragina zuen Ostolaza eraikinean sortu zen eskolak. Disziplina anitz landu ziren iraun zuen bitartean: pintura, eskultura, musika, antzerkia... askatasun experimental giro horretan ezarri zituen Zabaletak bere estilo eta iruditeri grafikoaren oinarriak.

Euskara metodoez gain beste formatu askotan marraztu zuen: kartelak, orma-irudi handiak, pegata txikiak, diskoen azalak, aldizkari azalak, ume eta gazte liburuen ilustrazioak, margolanak... formatu anitzetan lan egin du Zabaletak, nahiz eta guk batez ere umore grafikoaren alorreko lanetan, hau da komikietan, jarriko dugu guk arreta berezia, izan ere, Jonek lantzen duen formatua edozein izanda ere, komikiaren hizkuntzaren eragina beti dago presente.



Deba Arte Eskolan gabonetako postal baterako egindako
marrazkia, 1973


Zabaleta eta komikia

70. hamarkadan euskal komikiaren berrikuntzaren aitzindarietako bat izan zen. Aparteko sona lortu zuen Antton Olariaga eta Juan Carlos Egillorekin batera. Bere ilustrazioak Franco hil ostean sortu berriak ziren hainbat aldizkarietan agertu ziren, beraz, lan hori ezagutzeko hamaika aldizkarietan sakabanaturik dauden lanetara jo behar dugu.



Barraskiloa Heraklitoren ibaian

Jose Mari Torrealdairen zuzendaritzapean, **Anaitasuna** astekariak 1975 urtean gehigarri berezi bat argitaratu zuen euskal komikiaren aldeko apustua eginez: **Komikia**. Lehen hiru aleetan agertu ziren *Zabaletaren* komiki istorioak; baina bertan agertu ziren marrazkiak ez ziren *Anaitasun*arako propio egindakoak, Deba Eskolako garaian, 1973 urtean egindako materialak berrerabiliak baizik. Zabaletaren pertsonaia ikonikoetako baten jaiotza ikusi genuen *Anaitasun*an: Pospolo-kaxa bat zabaldu zen eta bertatik pospolo errebelde bat ateratu zen arrastaka, bere buruaren gainean kiribilduz Zabaletaren barraskiloen historian lehen barraskiloa bihurtu zen. Horra hor bere komikigintzaren ezaugarri iraunkorrenetako bat, gauzen etenbako metamorfosia. *Heraklitoren* hitzak, *Pantha Rei*, *Dena da aldakorra*, *Jonek* irudiak bihurtu eta komikia bihurtu zituen. Baina adi! Barraskiloaren irristatze geldoa da, denboraren joana azkar eta gaiztoa *Zabaletak* komikietan atxikitu, moteldu eta gozotu egiten du. Komikiaren lengoaiak posiblea egiten duen fenomeno dugu hori...



Lehen barraskiloaren jaiotza, 1973. urtea zen



Afrika-London-Paris-Baiona-Donostia

Afrikara, Londresera eta Parisera eraman zuten bidaia batzuk kateatu ondoren, berriz Euskal Herrira bueltatu zen, Baionara. Hile bi eman zituen Baionan eta bertan argitaratzen zen *Hitz* aldizkariarentzat hainbat artikuluen osagarri ziren irudiak marraztu zituen, eta horrez gain, 1976an **Aberri Egunaren Ipuia** ere hamabi orrialdeko gehigarria marraztu eta *Akullu* ezizenez sinatu zuen; testuak *Beñat Bidegorri* batenak ziren, izenordearen atzean nor ezkututzen zen ez dakigularik. *Aberri Egunaren Ipuia* parabola fantastiko-grafiko eder bat da. Zabaletak komiki-gidoilari batekin kolaboratu zuen lehen -eta azken- aldia izan zen eta emaitza oso interesgarria izan zen, gidoilariak marrazkilaria ohiko erosotasun-gunetik haratago lan egitera behartu zuelako. Une hartako egoera larrian aldarrikapen eta karga politiko itzela zuen ipuinak. Komikia batzuetan errebindikaziorako tresna erabilgarria dela, ukabila bezain zuzena, erakutsi zuen.



Aberri egunaren ipuia, Hitz aldizkariaren ale berezi bat izan zen, 1976

Donostiara bueltan, kalean bertan plazaratu behar zen aldizkari batean kolaboratzeko eskaintza egin zioten. *Berriak*: semanario vasco de información, Donostian 1976ko irailetik 1977ko apirilera arte argitaratu zen astekari elebiduna izan zen. Aldizkaria 30 aldiz kaleratu zen. Aldizkariaren azal batzuk egiteaz aparte, *Zabaletari* astero-astero komiki orri bat bete zezan eskatu zioten. Bigarren zenbakian orri zuria **Xua, Taka eta Klok** umeen ametsezko jolastokia bihurtu zuen. Estiloaren marka: fantasia poetikoa eta komikien plastikotasun izugarria. Zabaleta bere estiloaren heldutasunera iritsi zen. Istorio mutu hauek munduaren ikuspegi baikorra eskaintzen diote irakurleari, non gizakia harmonikoki integratzen den ingurune naturalarekin. Pertsonaiok berriz ere *Ipurbeltz* aldizkariaren 1978ko zenbakietan berpiztu egin ziren.



Xua, Taka eta Klok

Zabalik atea


Berriak astekaria 1977ko udaberrian desagertu baina udazkenerako **Egin** egunkaria sortu zen. Solasjaipausa atalean euskal marrazkilari sonatuen triada bildu zen: Antton Olariaga, Juan Carlos Egillor eta Jon Zabaleta. Hirurak nortasun grafiko handiko artistak. Jon Zabaletak Egin egunkarian garatu eta sakondu zuen bere imajinarioa, barraskilo, elefante eta ilargien protagonismoarekin. Donostiako Aiete Kultur Etxeko Ilustrazioa Txokorako egindako erakusketa baten harira, honela azaldu zuen elementu horien esanahia: "Ikurrak dira. Nire bizitzan zehar neure buruarekin bakarka egotea tokatu izan zait eta, nolabait, denbora horretan irudikatu ditudan elementuak direla uste dut. Afektiboak, nahi baduzu. Inguruan dituzunekin lotura magiko horiek sortzeko balio dutenak. Askotan pentsatu dut barraskiloa etxea dela; leku finko bat ez badu ere, hor doa bere etxearekin, batetik bestera. Elefantearena berezia da: uste dut txikitan Hernanira zirku bat etorri eta, ukuiluan, elefantea ikusi nuela. Azaltzeko gai ez naizen haurtzaroko bidaia baten emaitza dela uste dut. Animalia handia da elefantea, hor dago beti, babesten... 'handien' mundukoa da. Eta ilargia, tira, gure ispilua dela sinistu izan dut beti: zuk nahi baduzu, zeure burua ikus dezakezula ilargian. Zure lagun handiena dela" (Gara, 2015eko otsailak 3).



Egin-eko marrazkiak

Ez da batere arraroa *Jonen* lana magia eta poesiarekin lotzea. Baita filosofiarekin ere. *Heraklito* aipatu dugu. *Jonen* lanek irakurketa ugari eskaintzen dizkigutelako maila ezberdinetan, bere marraren sinpletasuna beste errealitate konplexuagoetara irekitako ate zabal bat da.

Eginen egon zen garaia da seguruenik *Jonen* aldirik emankorrenetako bat, batez ere egunkariaren erritmoak marrazki bat egunero egitea behartzen zuelako. Horrez gainera, egunkariaren tirada eta zabalkundea handia izanik, bere ospea Euskal Herriko lau haizeetara zabaldu zen.




Egin-en argitaratutako marrazkia

Fantasia bai, magia bai, baina inguruarekiko harremana garrantzia hartzen zuen bere *Egineko* marrazkietan. Konpromisoa ez zen harlauza astun bat, are gehiago, formatu handiko marrazkietan (egutegietan adibidez) Zabaletak bere bertsio artistiko onenetako bat eskaini zigun. Lirismoaren izpirik galdu gabe kalean egunero ikusten zuen errepresioaren berri eman zuenean. Garai hartan komikiek “bertsio ofizialaren” aurrean kontraste izateko eginkizuna betetzen zutelarik.

Izan ziren, bitartean, beste kolaborazio batzuk garai hartan ernatu zen prentsa grafikoan: *Garaia*, *Ere*, *Zeruko Argia*.



Garaia aldizkaria,
1977ko martxoa




Euskadi Sioux 1979ko maiatza

Siouxak EHko far westean

Gure komikigintzaren beste izar handiekin batera, *Simonides*, *Jose Ibarrola*, *Juan Carlos Egillor* eta *Antton Olariagarekin...* **Euskadi Sioux** fantzinean hartu zuen parte Zabaletak. *Euskadi Sioux* 1979ko otsailetik maiatzera argitaratu zen. Satira politiko-soziala aldizkariaren osagai nagusietako bat zen. Erdara nagusia zuen aldizkarian, "sioux" bakarrak ziren *Olariaga* eta *Zabaleta*. *Olariagak* satiratik baino ironiaren sokatik tiratu zuen. *Zintza!* Euskara ikasteko metodo *analgesiko*, *aseptiko* eta *ahokidekaria* proposatuz (irakurleei eta agian erredakzioko lagunei). *Zabaleta* kontakizun poetikora jo zuen arren, adibidez maiatzaren 1ean argitaratu zen kontrazal ederrean, *underground* amerikarraren ukitua zuten marrazki "gaiztoagoak" ere egin zituen. Bere ohiko norabidean ez zihoazten zenbait marrazki ikusteko aukera izan genuen *Euskadi Sioux*en.

Kometak zeruan


Erein argitaletxearen bultzadaz 1977ko abenduan sortu zen **Ipurbeltz** aldizkari-komikia eta hilero-hilero mantendu zen hutsik egin gabe 2008an desagertu zen arte. Zabaleta tebeoan hasieratik hasi zen kolaboratzen, bai *Xua*, *Taka* eta *Klok* berpiztuz 10 eta 11 zenbakietan, bai azal gogoangarri batzuk eginez. Baina 1990 urtean *Ipurbeltzerako* pertsonaiak berriak sortu zituen propio: **Mari**, eta ondoren **Braulio**. 70eko hamarkadan ez bezala, lanak koloreztatuta daude, hori baita *Ipurbeltzek* eskaintzen zion aukeretako bat. Kolore-paletaren erabilera zoragarria da. *Mariren* istorioak aldizkariaren lehentasunezko leku batean agertzen dira lehenik, kontra-azalean, barruko orrialdeetan geroago. *Mariren* agurra eta *Braulio*ren jaiotza *Ipurbeltzen* 164 zenbakian gertatzen da, eta bitxia da, trantsizioa zenbaki bereko *Mariren* azken istorioan ematen da. *Marik* *Braulio* aurkezten digu eta istorioa *Braulio*k amaitzen du.



Mari

Braulioren etorrerak estilo aldaketa dakar. Koloreak bizitu eta bineten markoak desagertu egiten dira. *Brauliorekin* artista solteago bat ikusten dugu, bere lanaz bete-betean gozatzen duena. *Euskaldunon Egunkarian* lanean hasi zen garaiarekin kointzidituz *Braulioren* seriea bukatu egin zen. Azken istorioan *Brauliok Montblanceko* gailurretik saguzar-parapente batean salto egin eta irakurleei agur esan zien betirako.


Baina ez zen izan *Ipurbeltzerako* egin zuen azken kolaborazioa. Berriro ere *Euskaldunon Egunkaria*ko tartea bukatu zenean euskal tebeora bueltatu zen. **Haurren kolorezko kometak** hartu zuen izena bere atalak lehendabizi, geroago **Nire baitan kolorezko kometak** izenera aldatu zen, eta seriea 1996tik aldizkariaren itxiera arte mantendu zen bizirik, guztira hamabi urtez. *Jon Zabaletaren* unibertso eta estiloaren ezaugarri guztiak ageri dira kolorezko kometetan: zirkua, jolasak, hitzik gabeko mundu onirikoak, formen etengabeko metamorfosiak, natura adiskidetsu eta humanizatuarekiko harremana. Banakakoen gainetik, espiritu kolektiboaren nagusitasuna gailentzen da bere istorioetan. Izan ere, bere ibilbide luzean ez zituen komiki-pertsonaia gehiegirik sortu, eta sortu zituenetan ere, ez zuten erraz identifikatzeko bereizgarririk; sarri plano ertain edo urrunetan mantentzen dira pertsonaiok, dekoratuarekin bat eginez -dekoratua mundu edo unibertsoaren sinonimoa delako kasu gehienetan-, hori baita bistan denez, funtsean artistari gehien interesatzen zaiona.



Braulio




Ipurbeltzen itxiera 2008ko ekainean gertatu zen. Euskal komiki-aldikari historikoa izan zen *Ipurbeltz*, 30 urte baino gehiago iraun zuena eta azken zenbakian agertzen diren lehen etapako egile bakarrak Jose Angel Lopetegui “Lope” eta *Jon Zabaleta* izan ziren.



Jon Zabaletak Ipurbeltz aldizkariaren jaiotza ezagutu zuen eta bere ibilbide luzearen amaieran istoriotxo bat marrazteko ohorea izan zuen.

Marrak eta Irriak

Joxemi Zumalabek gonbidatuta, *Zabaletak Euskaldunon Egunkariara* salto egin zuen 1993ko urtarrilean. **Irrimarra** zen egunero jorratu behar zuen bineta bakarreko seriaren izena. Egunkariaren leku pribilegiatu batean argitaratu zuen gainera, kontrazalean. 1995eko urrira arte mantendu zen *Irrimarra*. Irria eta marra. Irria, gehienetan, fantasian oinarrituta zegoenean, egunerokotasun gordinaren jarraipena edo interpretazio grafikoak batzuetan irriak mikazten bazituen ere. Marra, garbia zen, mehea, delikatuia, sintetikoa. Medio gutxiarekin asko azaltzen zuena.




Irrimarra



ILUSTRAZIOA

Onin erreka


Dena da jarioa, *Heraklitoren* ibaian edo Lesakako *Onin* errekan. Hara bizitzera joan zen *Zabaleta* 80ko hamarkadan, ia konturatu barik pasatu zitzaion 70ko hamarkada eta berrian ilustrazio mundura hurbilduko zela pentsatu zuen. Ilustrazioan ere ibilia zen lehenago, aldizkarietan artikulak ilustratu baitzituen, eta liburu gogaingarri bat ere irudiz hornitu zuen: ***Michélin 100 días de lucha***. ELAK argitaratu zuen liburua 70ko hamarkadaren erdi aldera.



Tomas Elortzaren **Botila baten historia** da Zabaletak ilustratu zuen lehen ipuina, 1974 urtean. Baina batez ere hurrengo hamarkadan haur eta gazte literaturaren mundura hurbildu zen. Hori bai, ilustrazioetan ere komikiaren hizkuntza beti du present.

Ehundik gora dira ilustratu dituen liburuak. Hamaika egileen testuak interpretatu ditu: Pako Aristi, Bernardo Atxaga, Mariasun Landa, Pello Esnal, Anju Lertxundi, Juan Kruz Igerabide...

Alor honetan utzi duen ondarea handia da.



Joxe Arratibel eta Patxi Zubizarretaren liburuaren azala eta kontrazala, Erein 2000

DISKO AZALAK


33 bira minutuko

Garai batean baziren binilozko diskoak. Ondoren errekatik behera hainbat formatu pasatzen ikusi ditugu: kasetak, Cdak, internetek... baina inoiz ez dira gauza bera izan. Binilozko diskoak ia gurtzazko objektuak ziren. Soinu-edukiaz gain, azaletako irudiek balore artistiko handi bat eransten zioten diskoari. Azaletako argazki edo ilustrazioak garrantzia handia izan du. Binilo diskoak ilustratu dituzte autore handienek. *Andy Warhole* azal ospetsuak egin zituen, baina *Guy Peellaert* komikilariak kultuzko ospea lortu zuen hainbat rock artistentzako egindako azalen diseinuengatik: *David Bowie*, *Willy DeVille*, *The Rolling Stones*... Gurean Zumetak *Mikel Laboaren*ak ilustratu zituen. *Jon Zabaletak* ere egina du bidea alor horretan. Eta poza eman digu arkeologia lan honetan ez dugulako aspaldiko geruza sakonetan bakarrik arakatu behar izanik. Azken boladan binilozko diskak berriz modan jarri dira eta hara! deskubritu dugu *Angel Katarainen* azken diska *Jon Zabaletak* zoragarri ilustratu duela.

Haxe da *Zabaletak* bidean osatu duen soinu-banda.



1975 **Xaribari taldea**, *Txano gorritxo*, Edigsa



1977an **Haizea**, *Haizea Herri*, Gogoa




1978an **Koska**, *Bihozkadak*. Xoxoa



1979an **AABB**, *Kantari*. Xoxoa



1980an **Imanol Urbietta** *Xixupika 1: Jolasmotrizitatea 1 eta 2*. Xoxoa



2021ean **Angel Katarain** *Angel Katarain Hegoa* diskak

BESTELAKO LANAK


Gainera, **Jon Zabaletak** era guztietako lan grafikoak egin ditu: herri elkarteentzat, erakunde edo enpresentzat... Hemen lagin txiki bat.



Molotoff irratia, 1994



Orona igogailu-enpresarentzat, 1995



Liburuaren eguna, 2005



Osinagako jaiak, 2000



Bira Zapatista, 2022

